



▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA



Gizarte Ongizaterako
Foru Erakundea
Instituto Foral
De Bienestar Social

▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

| Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen segurtasun egitura funtzionala datuak babesteko araudi berrira egokitzeko erabakia





Bertsioaren kontrola

BERTSIOA	DATA	ALDAKETAREN ARRAZOA
00	2019/05/22	Hasierako bertsioa

EGINDA ETA BERRIKUSITA

Sinatuta: VADILLO ASESORES SOLUCIONES JURÍDICAS A EMPRESAS, S.L.

Data: 2019/05/22

ONARTUTA

Onartuta:

GOFEKO KUDEAKETAKO

Sinatuta:

Data:



AURKIBIDEA

1	Propuesta de Acuerdo de Estructura Funcional de Seguridad del IFBS	4
1.1	Akordioaren edukia.....	4
1.2	I.eranskina	8

GOFERen segurtasun egitura funtzionalari buruzko erabaki proposamena

1.1 Erabakiaren edukia

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen datu pertsonalak tratatzeko egitura funtzionala, Europar Batasuneko datuen babesari buruzko 2016/679 Erregelamendu Orokorren eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoaren arabera.

- I. 2016/679 Erregelamendu Orokorra, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (aurrerantzean DBEO) 2016ko maiatzaren 4an argitaratu zen, hil horretan bertan jarri zen indarrean eta 2018ko maiatzaren 25az geroztik aplikatzen da.

Erregelamendu hori zuzenean aplikatzen da estatu kideetan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 288. artikuluan xedatutakoaren arabera, estatuko legedira ekarri beharrik gabe. Nolanahi ere, 2018ko abenduaren 1ean 2/2018 Lege Organikoa, datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa, onartu zen. (DPBEDBLO).

Araudi berri horrek abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, datu pertsonalen babesekoa, eta hura garatzeko arautegia bazter uzteaz gain, hainbat aldaketa sartzen ditu materia bideratzeari dagokionez, aurrerapausoak eman baitira eta araua betetzen dela kontrolatzean oinarritutako eredu erabili ordeztu erantzukizun aktiboan oinarritutako beste bat erabiliko da, zeinaren bidez araua arduratsu eta benetan beteko dela bermatuko baita. Hartara, sistema formalista eta itxi batetik prebentzioan oinarritzen den eta arau hausteari aurrea hartzen dion arrisku kudeaketa sistema ireki batera igaro da.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak konpromisoa hartu du bere arauak, prozedurak eta jardunbide egokiak araudi berri horretara egokitzeko, zein pixkanaka informazioa tratatzeko beharizanetarako egoki diren baliabideak jartzeko, informazioaren segurtasuna eta datuen babesari buruzko araudia betetzea bermatzeko.

Esparru juridiko berri horren elementu nagusien artean, datu pertsonalak tratatzen dituzten administrazio publikoak behartuta daude datuak babesteko ordezkarri bat izendatzeko. Horretarako, 127 zenbakiko ALHAOn, 2018-11-05ekoan, argitaratutako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen erabaki baten bidez, “VADILLO ASESORES SOLUCIONES JURÍDICAS A EMPRESAS, S.L.” enpresa izendatu zen karguari dagozkion eginkizunak eta eskumenak garatzeko kide bakarreko organo.

- I. 3/2018 Lege Organikoaren eta (EB) 2016/679 Erregelamenduaren arabera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak erabakiko ditu tratamendua legediaren arabera dela bermatu eta ziurtatzeko aplikatu behar diren neurri egokiak, teknikoak eta antolakuntzakoak, zeinen artean baitago datuen babeseko inaktuaren ebaluazioa egiteari buruzko balorazioa.
- II. Araudi horrek ezarritako baldintzetan rol funtzional hauek ezarri dira:
 - a) Tratamenduaren arduraduna, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea da, DBEOaren 4.8 artikulua arabera: *“persona fisiko edo juridikoa, agintari publikoa, zerbitzua edo beste erakunde bat, bakarrik edo beste batzuekin, tratamenduaren xedeak eta baliabideak ezartzen dituena; Europar Batasuneko edo Estatu Kideetako Zuzenbideak tratamenduaren xedeak eta baliabideak ezartzen baditu, tratamenduaren erantzulea edo hura izendatzeko berariazko irizpideak Europako Batasuneko edo Estatu kideetako Zuzenbideak ezarri ahalko ditu”*
 - b) Tratamendu-eragilea: *“tratamenduaren arduradunaren izenean, datu pertsonalak tratatzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo bestelako erakundea”*.
Arduradunek eta eragileek, (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 24. eta 25. artikuluetan zerrendatutako elementuak kontuan hartuz, tratamendua erregelamendu horren, lege organiko honen, hura garatzeko arauen eta aplikatu beharreko sektoreko legediaren (DPBEDBLOaren 28. art.) arabera dela bermatu eta ziurtatzeko aplikatu behar diren neurri egokiak, teknikoak eta tratamendukoak, erabakiko dituzte.
 - c) Datuak babesteko ordezkarria da *“besteak beste, datu pertsonalen babesaren arloan araudia betetzen dela gainbegiratzeko eta, hala badagokio, datu pertsonalen tratamenduari lotuta berarekin harremanetan hartzen diren pertsonen kontsultak kudeatzeko eginkizunak dauzkana,”* (DBEOaren 39. art.)

Tratamenduaren arduradunak eta eragileak bermatuko dute datuak babesteko ordezkariak ez duela jarraibiderik jasotzen eginkizun horiek betetzeari buruz. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak edo eragileak ez dute hura kargugabetuko ez zehatuko bere eginkizunak betetzeagatik. Datuak babesteko ordezkariak GOFeren hierarkia maila gorenari edo eragileari emango dizkio kontuak zuzenean. (DBEOaren 38.3. art.)

GOFEk datuak babesteko ordezkari bat izendatu behar du; izan ere: a) tratamendua agintari edo erakunde batek egiten du (DBEOaren 37.1 art.).

Datuak babesteko ordezkaria GOFEn plantillakoa izan ahalko da edo eginkizunak bete zerbitzuen kontratu baten esparruan. (DBEOaren 37.6. art.)

Interesdunak harremanetan jarri ahalko dira datuak babesteko ordezkariarekin, euren datu pertsonalen tratamenduari eta euren eskubideak erregelamendu honen babesean erabiltzeari lotutako kontu guztiei dagokienez. (DBEOaren 38.4 art.)

- II. Arestiko II. puntuan definitutako postu funtzionalez gain, operatibotasun handiagoa lortzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen erakunde esparrutik zuzenean definitutako segurtasun rol hauek mantentzen dira.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak laguntza jaso ahalko du tratamenduaren arduradun funtzionalengandik, hots, nor bere jarduera eremuan tratamendu jarduerak kudeatzen dituzten zuzendariordetza teknikoaren arduradunengandik.

- III. Arestiko II. eta III. puntuetan definitutako postu funtzionalek zein Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzurako langileek dagokien lege araudian ezarritako baldintzetan tratatuko dute euren eginkizunak betetzean eskuratzen duten informazioa.

Arestiko puntuetan adierazitako eginkizunen eta rolen deskribapen orokorra, kontrakoa ez dioten horretan, aurreko DBLOak eragindako datuen kudeaketan diharduten egiturazko postuek datuen tratamenduari eta babesari lotuta ordura arte esleituta zeuzkatenei erantzen zaie eta, bestela, ordeztu egiten ditu haiek eta, beraz, ez da beharrezkoa langile kopurua handitzea.

Eginkizun horiek “Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko langileek datuak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Lege Organikoari lotuta dauzkaten eginkizunen eta betebeharren laburpena” izeneko agirian daude zehaztuta (I. eranskin gisa erantsi zaio agiri honi).

Horregatik, erakunde honen ustez, egokia da aurreko DBLOaren arabera ezarritako segurtasun eta pribatutasunaren egitura funtzionala egungo araudiaren arabera egokitzea, halako moldez non DPBDBLOak eta DBEOak aipatzen duten informazioaren tratamendua bermatu, arautu eta kontrolatzen duen.

Horregatik, kudeaketako zuzendaritzak proposatuta eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak gaia aztertu ondoren, gaur bertan egindako bilkuran hau

ERABAKIA

Lehenengoa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea izendatzen da tratamenduaren arduradun, eta Kudeaketako Zuzendaritzari dagokio hari esleitutako eginkizunak betetzea.

Bigarrena. Euren jarduera eremuan kudeatzen dituzten tratamendu jardueren zuzendariordetza teknikoetako arduradunak tratamenduaren arduradun funtzional izendatzen dira, eta egokitzat jotzen dituzten langile operatiboen laguntza jaso ahalko dute.

Hirugarrena. Antolamendu eta informatikako zuzendariordetza teknikoko arduraduna edo berak bere ordeztan izendatzen duen pertsona izendatzen da tratamenduen segurtasunaren arduradun.

Laugarrena. 127. zenbakiko ALHAOn, 2018ko azaroaren 5ean, argitaratutako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen erabakiaren bidez, foru erakunde horrek “VADILLO ASESORES SOLUCIONES JURÍDICAS A EMPRESAS, S.L.” erakundea izendatzen du datuak babesteko kanpoko ordezkari, eta dagoen lege gaikuntzaren araberrako zerbitzuen kontratu baten esparruan beteko ditu berak bere eginkizunak.

Bosgarrena. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko langileek datuak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Lege Organikoari dagokionez dauzkaten eginkizunak eta betebeharrak ezartzen dira (Erabaki honen I. Eranskinean jaso dira).

Seigarrena. Erabaki honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

1.1 I. Eranskina

GOFeren segurtasun egitura funtzionala datuak babesteko araudira egokitzeko erabakiaren eranskin honek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko langileek datuak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Lege Organikoari dagokionez dauzkaten eginkizunak eta betebeharrak deskribatzen ditu:

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundek tratamenduaren arduraduna den aldetik daukan eginkizunak eta betebeharrak

Hauek dagozkio GOFeko Kudeaketako Zuzendaritzari, tratamenduaren arduraduna den aldetik, DBEOaren 24. artikulua eta DPBEBLOaren 28. artikulua araberara:

- a) Datuen babesa bermatzea, diseinutik eta era lehenetsian, datuak babesteko printzipioak betetzea ziurtatuz;
- b) Tratamenduaren izaera, eremua, testuingurua eta xedea, zein hainbat probabilitate duten arriskuak eta pertsona fisikoen eskubide eta askatasunentzako larritasuna kontuan hartuz, GOFek neurri egokiak aplikatuko ditu, teknikoak eta antolakuntzakoak, tratamendua Erregelamendu honen arabera dela eta tratamenduaren berriazko xede bakoitzerako behar diren datu pertsonalak baino tratatzen ez direla bermatzeko eta era lehenetsian frogatu ahal izateko. Neurri horiek behar denean berrikusi eta eguneratuko dira;
- c) Tratamendu jardueren erregistroa sortzea eta eguneratuta edukitzea, eta datuen babeseko inpaktuaren ebaluazioa baloratzea eta, hala badagokio, hura egitea;
- d) DPBEBLOak eragindako datuen tratamenduaren xedea, edukia eta erabilera erabakitzea;
- e) Tratamenduen arduradun funtzionalek eta segurtasunaren arduradunak beste tratamendu-eragileak identifikatzea;
- f) Gardentasuneko betebeharrak betetzea, baita datuen babesaren arloan interesa duten eskubideei kasu egiteko betebeharrak ere, datuak eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, aurkaratzeko, mugatzeko, eramateko eta erabaki automatizatuak ez jasotzeko eskubideen eskabideak jaso, izapidetu, jarraitu eta kasu egiteko prozedurak ezarri eta kudeatu.
- g) Foru erakunde honen barruan datuen babesaren arloan ezarritako jardunbide egokiak zabaldu eta komunikatzea, langile haiei guztiei buruzko prestakuntza eta kontzientzia emanez.
- h) DBEOaren 40. artikulua araberara onartutako jokabide kodeei, edo DBEOaren 42. artikulua araberara onartutako ziurtapen mekanismo bati atxikitzea; GOFek bere betebeharrak bete dituela frogatzeko elementu gisa erabili ahalko dira horiek.

2. Tratamendu-eragileen eginkizunak eta betebeharrak

Hauek dagozkio tratamendu-eragileari, DBEOaren 28. artikulua eta DPBEBLOaren 33. artikulua arabera:

- a) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako jarraibideak betetzea, baita datu pertsonalak hirugarren herrialde bati zein nazioarteko erakunde bati transferitzeari eta dagokion kontratu edo hitzarmenaren arabera ezarritako kontratatze aukerari edo debekuari dagokienez ere;
- b) Tratamenduaren jardueren erregistroa eramatea, eta GOFeren kontura egiten duen tratamendu bakoitzaren arriskuak aztertzea, zein tratamendu horretarako egoki diren segurtasun neurriak ezartzea, informazioaren babesa emandako zerbitzuak dakartzan tratamendu motaren eta datu motaren proportzioan bermatuz;
- c) Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonak konfidentzialtasuna errespetatzeko hitza eman dutela edo estatutu izaerako konfidentzialtasuneko betebeharrak bati lotuta daudela bermatzea;
- d) GOFek beste tratamendu-eragile batengana jotzeko adierazitako baldintzak betetzea, eta bereziki ez jotzea beste eragile batengana GOFek lehenago, berariaz zein orokorrean, idatziz baimenik eman gabe, beste eragile batzuk hartu edo ordeztzeko aurreikusitako aldaketa ororen berri emanez, neurri egokiak, teknikoak zein antolakuntzakoak, aplikatzeko berme nahikoak ematen dituzten tratamendu-eragileak bakarrik hautatuz, halako moldez non tratamendua araudiaren arabera den;
- e) GOFeri laguntzea, tratamenduaren izaera kontuan hartuz, neurri egokiak, teknikoak eta antolakuntzakoak, erabiliz, posible den heinean, eta interesdunen eskubideak erabiltzea xede duten eskabideei erantzuteko betebeharrak betetzen laguntzea;
- f) GOFek aukeratuta, eragileak datu pertsonal guztiak ezabatu edo itzuliko ditu tratamendua egiteko zerbitzuak ematen amaitutakoan, eta dauden kopia ezabatuko ditu, Europar Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen arabera datu pertsonalak kontserbatzeko eskatu ezean;
- g) Kontrol agintariari laguntzea eta betebeharrak horiek bete izana frogatzeko behar den informazio guztia GOFeren eskura jartzea, eta GOFek edo arduradun horrek baimendutako beste auditore batek auditoretzak, ikuskapenak barne, egiten uztea eta laguntzea.

3. Datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak

Hauek dagozkio datuak babesteko ordezkariari DBEOaren 39. artikulua eta DPBEBLOaren 37. artikulua arabera:

- a) Eginkizunak tratamendu eragiketari lotutako arriskuei behar den arreta jarri betetzea, tratamenduaren izaera, irismena, testuingurua eta xedeak kontuan hartuz.

- b) GOFeri edo tratamendu-eragileari eta tratamenduaz arduratzen diren langileei Erregelamendu honen eta Europar Batasuneko eta estatu kideetako datuak babesteko beste xedapen batzuen arabera dagozkien betebeharrei buruzko informazioa eta aholkularitza ematea
- c) Erregelamendu honek, Europar Batasuneko edo Estatu kideetako datuen babeseko beste xedapen batzuek eta GOFeren edo datu pertsonalen babesaren arloko tratamendu-eragilearen politikek ezarritakoa betetzen dela ikuskatzea, tratamenduetan eta kontu ikuskapenetan parte hartzen duten langileen erantzukizunen esleipena, kontzientziazioa eta prestakuntza ere barne hartuz;
- d) datuen babesak duen eraginaren ebaluazioari buruz eskatzen zaion aholkularitza ematea, eta aplikatzen dela egiaztatzea, 35. artikuluan ezarritakoarekin bat;
- e) kontrol agintaritzarekin elkarlanean aritzea;
- f) kontrol agintaritzarekiko harremanetarako gune moduan jardutea tratamenduari buruzko gaietan, barnean sartzen delarik 36. artikulua aipatutako alde aurreko kontsulta, eta kontsultak egitea, hala behar izanez gero, beste edozein gairi buruz.
- g) interesdunekin hitz egin eta haiei informazioa ematea, GOFek eskatzen duenean eskubideak erabiltzeko eskabideei buruzko txostenak egitea, eta eragindako pertsonen jarritako aurreko erreklamazioak izapidetzea.

4. Segurtasunaren arduradunaren eginkizunak

Segurtasunaren arduradunaren eginkizunak dira Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoak tratamenduek dauzkaten arriskueterako egoki diren segurtasun neurriak ezartzeari buruz xedatutako alderdi guztiak betetzea, tratamenduaren arduradunarekin koordinatuta:

- a) antolaketa arloa eta arlo teknikoa,
- b) legeria,
- c) eskatutako agiriak kontrolatzea eta kudeatzea,
- d) segurtasuneko politikak eta prozedurak eguneratzea,
- e) Behar diren segurtasun neurriak, kontrol mekanismoak eta datuak babesteko politika egokiak ezartzea,
- f) Ezarritako segurtasuneko jardunbideak onartzea, zabaltzea eta erakundearen barruko erabiltzaileei jakinaraztea, langile haiei guztiei buruzko prestakuntza eta kontzientziazioa emanez,
- g) Foru erakundeko barne langileekin eta datuen titularrekin edo eragindako pertsonekin hitz egitea kontu teknikoak azaltzeko, beharrezkoa bada;

- h) GOFeri aholkularitza ematea eta tratamenduaren arduradun funtzionalek eta datuak babesteko ordezkariak erabakiak hartzeko behar duten informazioa eskura jartzea;
- i) Erregularizazioa hirugarrenetik harremanetan (datuak lagatzea eta hirugarrenen kontura eskuratzea), eta berme nahikoak ematen dituzten tratamendu-arduradunak baino ez hautatzea,
- j) Koordinazioa betetzea egiaztatzeko neurriak eta aldizkako kontrolak eta auditoretzak ezartzean,
- k) Datu aktiboak eta eskuragarri ez dauden datu historikoak berreskura daitezkeen edo ez ikuskatzea,
- l) Segurtasuneko prozedurak aplikatzea: gorabeheren kudeaketa, sarbide logiko eta fisikoen kontrola eta erregistroa, babes kopiak eta berreskuratzeko kopiak, euskarrien kudeaketa, etab.
- m) Tratamenduaren arduradun funtzionalari eta DBSri gertatzen den eta datu pertsonalei eragiten dien edo eragin liezaiekeen segurtasuneko gorabehera edo arrakala orok jakinaraztea.

5. Tratamenduen arduradun funtzionalen eginkizunak

Tratamenduaren arduradun funtzionalak zuzenean betetzeko eginkizunak dira tratamenduaren arduradunari dagozkionak, eta hauek, zehazki:

- a) Tratamendu jardueren erregistroa eguneratuta egoteaz arduratuko da
- b) Araudia betetzeko berariaz egindako politikak prozedurak eta erregistroak ezartzeaz arduratuko da, bereziki garrantzitsuenak, berariazko baimeneko eta interesdunen eskubideak erabiltzeko betebeharra betetzeari dagozkienak
- c) Segurtasunaren arduradunarekin eta DBSrekin koordinatzea neurri egokiak, antolakuntzakoak zein teknikoak, hartzean;
- d) Behar diren segurtasun neurriak, kontrol mekanismoak eta datuak babesteko politika egokiak aplikatzeko erabakia hartzea;
- e) Langileen prestakuntza eta kontzientziaziorako aldizkako ekintzak egingo dituzte, foru erakunde honen barruan ezartzen diren datu pertsonalak babesteko dokumentazioari eta jardunbide egokiei buruz, langile haiei guztiei buruzko prestakuntza eta kontzientziazioa emanez;
- f) Datu pertsonalen tratamenduaren inpaktua ebaluatu eta arriskuak aztertzea, batez ere antolakuntza kontuetan eta kontu teknikoetan, segurtasunaren arduradunari eta DBSri zein kasuan kasu eragindako tratamendu-eragileei behar den laguntza eskatuz;
- g) Neurri egokiak, teknikoak zein antolakuntzakoak, aplikatzeko berme nahikoak ematen dituzten tratamendu-eragileak hautatzea, halako moldez non tratamendua DBEOaren baldintzen arabera egiten den,

- h) Erabakiak hartzea informazioa edozein euskarritan sartu eta irtetea kudeatzeari eta hura baimenduta eskuratzea kudeatzeari buruz
- i) Datu blokeatu ez aktibo eta ez eskuragarriak ezabatzeari buruzko erabakiak hartzea
- j) Euskarri ez automatizatuen kudeaketa eta zaintza zuzenari buruzko erabakiak hartzea
- k) DBSri jakinaraztea gerta litekeen eta datu pertsonalei edo informazioaren segurtasunari eragiten dien edo eragin liezaiekeen segurtasuneko gorabehera edo arrakala oro.

6. Datuak babesteko ordezkararen eginkizunak

Honela laburbiltzen dira datuak babesteko ordezkararen eginkizunak eta betebeharrak:

- Tratamenduaren arduradunari edo eragileari eta tratamenduaz arduratzen diren langileei Erregelamenduaren eta datuen babesean aplikatu beharreko gainerako araudiaren betebeharrak buruz informazioa eta aholkularitza ematea.
- Erregelamendua eta datuen babesean aplikatu beharreko gainerako araudia, eta tratamenduaren arduradunaren edo eragilearen arlo horri buruzko politikak betetzen direla gainbegiratzea, arduen esleipena, tratamendu eragiketetan parte hartzen duten kontzientziazioa eta prestakuntza eta dagozkien auditoretzak barne.
- Datuen babesaren gaineko eraginaren ebaluazioaren inguruan eskatzen den aholkularitza eskaintzea, eta hura aplikatzen dela gainbegiratzea.
- Kontrol agintaritzari laguntzea.
- Kontrol agintaritzarekiko harremanetarako gune moduan jardutea tratamenduari buruzko gaietan, barnean sartzen delarik alde aurreko kontsulta, eta kontsultak egitea, hala behar izanez gero, beste edozein gairi buruz.

Horretarako, hau egin beharko da:

- Bermatzea parte hartuko duela datuen babesari buruzko arlo guztietan.
- Eman beharreko baliabide guztiak ematea hari bere egitekoak egin ditzan.
- Bermatzea modu independentean jardun ahalko duela.
- Ahalbidetzea eskura izango dituela datuak eta prozesamendu eragiketak.
- Ofizialki jakinaraztea haren izendapena.
- Ahalbidetzea prestakuntza etengabea izan dezala.